



Datorren ekainaren 8an giza-katea osatuko da Durango eta Iruñea artean. Milaka herritar aterako da gure herriko bideetara modu berezian adierazteko nazio bat garela, erabakitzeko eskubidea zor zaigula eta etorkizuna gure esku dagoela.

Hori da **Gure Esku Dago** plataformak bultzatu duen ekimenaren esanahia. Ekimen plurala, ez alderdikoia, helburutzat hartu duena oinarrizko eskubide demokratiko baten alde -gure buruaz askatasunez erabakitzeko eskubidea-gizartearen konpromisoa aktibatzea. Ekainaren 8ko ehunka lagun ari da berebiziko ilusioz bultzatzen, herri askotan taldeak osatuta.

ELAk sinatu zuen Lizarra-Garaziko adierazpenak esaten zuen legez, "Euskal gatazka gatazka historikoa da", eta irtenbidea demokrazian sakontzearen ondorio izango da, "hau da, Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den euskal herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dutela". Horregatik, sindikatuak zoriondu egiten ditu egitasmo hau bultzatzen dutenak eta ongi etorría ematen dio errebindikazio nazionalean herritarrei protagonismoa eman nahi dien ekimenari. Gure ustez, ez dago

prozesu nazionalik mobilizazio sozialik gabe. Politika ez da erakundeetan hasten, ezta beraietan agortzen ere.

Horregatik, ELAk bere afiliatu guztiak, eta bereziki militanteak, animatzen ditu ekimen honetan modu aktiboan parte har dezaten; lantokietan ezagutzen eman dezaten; proiektua antolatzen ari diren herrietako taldeetara bil daitezen, eta azkenik, ekainaren 8ko giza-katean parte har dezaten. Banaka zein taldeka egin dezakezue (familia, adiskideak, lankideak, etab.).

Gure Esku Dago ekimenaren eta gure sindikatuaren webguneetan (gureeskudago.net eta www.elasindikatua.org, hurrenez hurren), agertuko dira helbide eta telefonoak zuregandik gertuen dagoen talde antolatzalearekin harremanetan jartzeko. Garrantzitsua da izen emateko urratsa lehenbailehen egitea (banaka zein taldeka dela ere), kokatu behar duzuen kilometro-puntuza esan diezazuetaen.

Eskuz esku, Gure Esku Dago!



El próximo 8 de junio una cadena humana unirá las poblaciones de Durango y Pamplona. Miles de ciudadanos y ciudadanas saldrán a las carreteras de nuestro país para escenificar de una manera singular que somos una nación, que tenemos derecho a decidir y que el futuro está en nuestras manos.

Este es el sentido de esta iniciativa impulsada por **Gure Esku Dago**. Una iniciativa plural y no partidista, que pretende activar el compromiso social por un derecho democrático básico, como es el derecho a disponer libremente de nosotros y nosotras mismas. Cientos de personas están impulsándola con una enorme ilusión, conformando grupos en multitud de nuestros pueblos.

Como decía la declaración de Lizarra-Garazi, suscrita por ELA, "el contencioso vasco es un conflicto histórico" cuya resolución pasa por profundizar en la democracia, "en el sentido de depositar en los ciudadanos de Euskal Herria la última palabra respecto a la conformación de su futuro". Por esa razón, este sindicato felicita a los promotores y da su bienvenida a esta iniciativa que quiere dar protagonismo a los ciudadanos y ciudadanas en la reivindicación nacional. Creemos que

no hay proceso nacional sin movilización social. La política ni empieza ni termina en las instituciones.

Por todo ello, ELA anima a toda su afiliación, y muy en especial a su militancia, a ser activos en el desarrollo de esta iniciativa; a darla a conocer en los centros de trabajo; a participar en los grupos locales que están impulsándola, y finalmente, a formar parte de la cadena humana del 8 de junio. Podéis hacerlo de manera individual o colectiva (familia, amistades, compañeros y compañeras de trabajo...).

En las páginas web de Gure Esku Dago (gureeeskudago.net) y de nuestro sindicato (www.elasindikatua.org) encontrarás las direcciones y teléfonos que te permitirán contactar con el grupo promotor más cercano. Es importante que formalicéis la inscripción (personal o colectiva) lo antes posible, para que se os asigne el punto kilométrico en que debéis situaros.

Eskuz esku, Gure Esku Dago!